


**HERRI BAKOITZAK,
BERE MITOLOGIA!**

**EUSKAL HERRIAK
BEREAK!**

**OLENTZERO ETA
MARI DOMINGI**



Segura
2021ko abendua



XVIII. IPUIN, BERTSO ETA MARRAZKI SARIKETA

Segurako Elorri eta Hitz edo Irri Euskaraz Elkarri elkarteek, euskara eta euskal kultura suspertu eta indartu nahien antolatzen dute hamazazpigarren aldiz sariaketa hau.

Segura, Zerain eta Mutiloako haur eta gaztetxoaz gain, Iparra-Hegoa aste kulturalean partaide izan ditugun Ikastetxeetara hedatu nahi genuke ekintza hau, baita Bertso Eskoletara ere. Horrela Euskal Herriko haurren, esamolde eta euskalki ezberdinez, elkar ezagutu eta aberasteko egokiera izango dugu.

Lanen oinarriak eta baldintzak honakoak izango dira:

1 – Adin talde bakoitzak bere gaia izango du eta aukerak ondoren datozenak.

2 – Aukera ezberdinak:

- **Ipuinak:** banaka egin eta aurkeztuak izango dira.
- **Marrazkiak:** banaka eta ORIJINALAK, ez kopiatuak.
- **Bertsoak:** banaka edo binaka lehen bi adin taldeetakoak eta azken adin taldekoak banaka.

Bakoitzak atal bakarrean, bitan edo hirutan parte har dezake.

3 – Adin taldeak, gaiak eta luze laburrak:

- **1. eta 2. mailakoak** (6-7 urte).

Gaia: 'Olentzero gaixo dago'. Ipuina orrialde bat eta bi kopia edo bertso.

- **3. eta 4. mailakoak** (8-9 urte).

Gaia: 'Olentzero eta Maridomingi ekaitzak harrapatuta dabilta'. Ipuina bi orrialde eta 3 bertso edo kopia.

- **5. eta 6. mailakoak** (10-11 urte).

Gaia: 'Bere etxe edo herritik ihes egin behar izan duen haurrari, nola ekarriko dizkiote opariak Olentzero eta Maridomingik'. Ipuina bi-hiru orrialde eta 4 bertso.

4 - Lanak entregatzeko azken egunak eta lekuak: azaroaren 24a, asteazkena, ikastetxe bakoitzean, eta 26 ostirala Segurako Elorri elkartearen edo ondoko telefono zenbakira deituaz (0034) 647052529. Iparraldekoek, Xaia ostatuan azaroaren 26an.

5 – Sariak:

- Adin talde bakoitzeko eta arlo bakoitzeko irabazlearentzat, "diploma edo agerkai" berezi bat egongo da eta aipamenei bat ere bai, maila ematen duten beste lanentzako.
- Partaide guztientzat izango da opari bat.

6 – Sari banaketa abenduaren 11n, larunbatean, egingo da, eguerdiko 12etan, Segurako Botikaxahar kulturgunean. Aurten ere ez da hamaiketarik izango.

7 – Epai mahaia, idazten, bertsoan eta margolaritzan adituak direnak osatuko dute.

Oharra: Saria edo aipamena jasotzen duten lanak, bere horretan, argitaratzeko asmoa denez, ahalegindu ahalik eta txukunen idazten (ahal bada ordenagailuz) eta marrazten.

Antolakuntzaren eskaera: Haurrek beraiek egindako lanak izan behar dira, irakasleen edo gurasoen laguntza berezirik gabe.



*Euskal
Herrian
euskaraz!*